

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Ondare Kudeaketa

Dosierra abiaraztea, baldintza-agiria onestea eta lehiaketa-deialdia egitea Gasteizko Frai Francisco Vitoria ibilbideko 21-C zenbakiari dagokion higiezia ("Gure Txokoa" izenez ezaguna den lursaila) lizitazio bidez besterentzeko

Udala da Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorrean I-3895 erreferentziarekin jasotako lurzatiaren jabea; lurzati hori udalaren lurzoru-ondarearen barruan sartuta dago ondare-ondasun gisa, eta 3. zenbakiko Jabetzaren Erregistroan 44.065 lursail gisa dago erregistratuta, deskribapen eta muga hauek dituelarik:

"Mila zortziehun eta berrogeita hamabost metro eta hogeita zortzi dezimetro karratuko (1.855,28 m²) azalera du, eta muga hauek ditu: iparraldean, Frai Francisco Vitoria ibilbidea; hegoaldean, lursail berezia; ekialdean, Batan ibilbideko bizikleta-bidea; eta mendebaldean, 248 lurzatia (Trinidad Díaz de Guereñu Luzuriaga andrearena) eta 251 lurzatia (Sociedad Patrimonial Salovi, SL enpresarena).

Lursailak bi eraikuntza ditu. Haien deskribapena:

A/ E-1 Eraikin Nagusia.: iparraldeko mugaren ondoan dago kokatuta; laurehun eta laurogeita hamazortzi metro eta hogeita sei dezimetro karratuko —498,26 m²— azalera okupatzen du, portxea barne; guztira mila seiehun eta hogeita zazpi metro eta hogeita hamazortzi dezimetro karratuko —1.627,38 m²— azalera eraikia du. Osaketa: beheko solairua: laurehun eta hirurogeita bi metro eta bederatzi dezimetro karratuko —462,9 m²— azalera eraikia, horietatik hirurehun eta laurogeita hamabi metro eta hemeretzi dezimetro karratu —392,19 m²— bulegoak dira, eta hirurogeita hamar metro eta berrogeita hamar dezimetro karratu -70,50 m²- instalazio osagarriak; lehen solairua: laurehun eta hogeita hamaika metro eta laurogeita hamasei dezimetro karratuko —431,96 m²— azalera eraikia, bulegoetarako; bigarren solairua: laurehun eta bi metro eta laurogeita sei dezimetro karratuko —402,86 m²— azalera eraikia, bulegoetarako; eta hirugarren solairua: hirurehun eta hogeita bederatzi metro eta laurogeita zazpi metro karratuko —329,87 m²— azalera eraikia, bulegoetarako.

Katastro erreferentzia: 59 58 0254 00 0001 0001 AQ.

B/ E-2 Eraikin Osagarria: ekialdeko muga dago; laurogeita lau metro karratuko —84,00 m²— azalera okupatzen du lurzatian. Osaketa: beheko solairua: laurogeita lau metro karratuko —84,00 m²— azalera eraikia, biltegirako; lehen solairua: laurogeita lau metro karratuko —84,00 m²— azalera eraikia, biltegirako; ganbera: hogeita hamasei metro karratuko —36,00 m²— azalera eraikia.

Katastro erreferentzia: 59 58 0254 00 0002 0001 AQ."

2021eko martxoaren 31n, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen lursail hori besterentzeko baldintza-agiria onestea. Oinarrizko prezioa edo lizitazio-tipoa 3.895.304,03 euro da (hiru milioi zortziehun eta laurogeita hamabost mila hirurehun eta lau euro eta hiru zentimo), zergarik gabe, eta lehiatzaileek gora eginez hobetu ahalko dute.

Esleipendunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak.

Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahalko da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25), alde zuzenetik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, herritarrei laguntzeko bulegoko jendaurreko ordutegian.

Baldintza-agiria v-g.eus/31YaAOI helbidean kontsultatu ahalko da.

Proposamenak Gasteizko Udalaren Erregistro Nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe; 01008 Vitoria-Gasteiz — aurkeztu beharko dira, 8:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, urriaren 12ko 1098/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, edo postaz, 30 egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Postaz igorritik gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lehiatzaileak, eta bidalketaren egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz (ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org).

Bi eskakizun horiek bete ezean, ez da onartuko proposamena iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen bada deialdia egiten duen organoak. Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direnean proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Aurkezteko epea bukatu eta handik bost egun balioduneko epean, balioespen-batzordea eratu da. Batzorde horrek gaitasun betekizunak betetzen direla egiaztatuko du, eta lehiatzaileen proposamenak dituzten gutun-azalak jendaurrean aurkezteko eguna eta ordua zehaztuko ditu. Hemen argitarako da: v-g.eus/31YaAOI.

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, horren akta jasoko du, eta Tokiko Gobernu Batzarriari helaraziko dio esleipen-proposamena hark onets dezan.

Esleipendunak 8.346,62 euroko bermea jarri beharko du 10 egun balioduneko epean, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 8an

Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria
IÑAKI GURTUBAI ARTETXE